

# AURKIBIDEA

Urtarrilaren 15ean, URTEAN ZEHARREKO II. IGANDEA.....	4
Urtarrilaren 22an, URTEAN ZEHARREKO III. IGANDEA .....	11
Urtarrilaren 29an, URTEAN ZEHARREKO IV. IGANDEA .....	18
Otsailaren 5ean, URTEAN ZEHARREKO V. IGANDEA .....	24
Otsailaren 12an, URTEAN ZEHARREKO VI. IGANDEA .....	30
Otsailaren 19an, URTEAN ZEHARREKO VII. IGANDEA.....	37

## KRISTAUEN BATASUNERAKO OTOITZ ASTEA

(Urtarrilaren 18tik 25era)

**Egizu ongia; bilatu zuzenbidea (Ik. Is 1, 17)**

*Jainkoaren Herriaren otoitzaren amaiera moduan egunero egiteko otoitza.*

Jaun ahalguztidun, bakearen Jainko, zure eskuina izugarri indartsu ageri da giza ahultasunaren erdian, eta indar hori Jesus zure Semearen gizon egitean eta gugatik gurutzean bizia ematean agertu duzu bereziki; zaude gurekin eta laguniezaguzu bataio bakarrak bat egin gaituen munduko kristau guztioi batasunean bizitzen; emaguzu espirituaren indarra eta sor guban bihotz garbia, elkar gizalegez trata dezagun, adiskidetzea eta senide-maitasuna sendo daitezzen kristau eliza guztien artean eta etsi gabe otoitz egin dezagun erabateko batasuna iritsi bitartean. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Urtarrilaren 15ean  
**URTEAN ZEHARREKO II. IGANDEA**

***Haur Misiolarien Jardunaldia***

**Agurra**

Jaunaren grazia eta bakea izan bitez zuekin.

**Sarrerako oharpena**

Urtean Zeharreko bigarren igandea dugu gaurkoa. Eguberrialdia burututa, bere bizitzako misterioak agertzen dizkigun Jaunaren urratsei jarraitzen diegu. Beharrezkoa dugu bere Hitzza eta Eukaristiako Ogia, eguneroko lanean kemenez jarduteko.

«Bat denontzat eta denok beretzat» dio gaur ospatzen dugun Haur Misiolarien jardunaldiko goiburuak. Egun garrantzitsua da, hurrei oroitarazteko, beste haurrentzat misiolari izatera deituak direla, gu guztiok bezala. Izan gaitezen misiolari, gure otoitzarekin eta eskuzabaltasunarekin.

**Damu-otoitza**

Senideok: aitor ditzagun gure bekatuak, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen:

—Jesus Jauna, Itun Berriaren bitartekoa: Erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, Elizaren Senarra: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, Adam berria, kreazio berriaren lehen-semea: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahalsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ✠. Amen.

**Otoitza**

Jainko ahalguztidun betierekoa,  
 zeure ardurapean dituzu zeru-lurrak;  
 entzun bihotz onez zeure herriaren otoitza  
 eta eman zeure bakea gure egunotan.  
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
 Zurekin eta Espiritu Santurekin batean  
 Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ℟. Amen.

**Hitzaren liturgiari oharpena**

Jainkoak dohaintzat ematen digun salbamena, bizitzari zentzua eta argitasuna emanaz gertatzen da. Jesusengan gertatzen da salbamen hori, Bera da sinestedun guztiontzat Jainkoaren agerpena, eta horregatik ezin da inoiz gertatu haserre bide, batasun lokarri baizik.

**Lehenengo irakurgaia** (*Is 49, 3. 5-6*)

Isaias Profetaren liburutik

Honela mintzatu zitzaidan Jauna: «Zu zara nire zerbitzaria, Israel, zure bidez agertuko dut neure ospea». Orain honela mintzo da Jauna, amaren sabelean eratu ninduen haren zerbitzari izateko, Jakob en leinuak harengana bihurtarazteko eta Israel herria biltzeko. Ohorez jantzi nau Jaunak eta neure Jainkoa izan dut indar.

Jaunak esan dit: «Ez da aski zu nire zerbitzari izatea, Jakob en leinuak berreraikitzeke eta Israelen bizirik geldituak itzularazteke. Nazioen argitatzat ezarriko zaitut, nire salbamena lurraren azken mugaraino irits dadin».

**Erantzun-salmoa** (*Sal* 40 [39], 2 eta 4ab. 7-8a. 8b-10)

He - men na - tor ni, he - men, Jau - na, e - gin de - za -  
dan Zuk e - sa - na.

- ∞. Jaunagan nuen jarria itxaropen **guztia**,  
makurtu eta entzun du nire **oihua**.  
Kantu berria ipini dit **ezpainetan**,  
gorespen-kanta gure Jain**ko**arentzat. ℞.
- ∞. Zuk ez duzu sakrifiziorik eta eskaintzarik **nahi** izan,  
ez erre-oparirik eta bekatuen barkamen-oparirik **eskatu**;  
baina belarriak ireki **diz**kidazu.  
Horregatik diot: «**Hemen** nauzu». ℞.
- ∞. Hau dago nitaz liburuan **idatzia**:  
egin dezadala zure **nahia**.  
Atsegin dut, **ene** Jainko,  
barne-muinetan dut zure **legea**. ℞.
- ∞. Iragarri dut batzar nagusian zure **justizia**,  
ez ditut ezpainak itxi, ongi **dakizu**, Jauna. ℞.

**Bigarren irakurgaia** (*1 Ko* 1, 1-3)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako  
lehenengo gutunaren hasiera

Nik, Paulok, Jainkoak hala nahirik eta berak deiturik, Jesu Kristoren apostolu naizen honek, eta Sostenes anaiak, Korinton dagoen Jainkoaren eliz elkarteari idazten diogu.

Jesu Kristok sagaratu zaituzte eta Jainkoak bere herri santu izateko deitu, edozein lekutan Jesu Kristo gure Jaunari dei egiten dioten guztiekin batera, hauek eta guk Jaun bat bera onartzen baitugu. Grazia zuei eta bakea gure Aita Jainkoagandik eta Jesu Kristo Jaunagandik.

### Aleluia (Jn 1, 14a. 12a)



∞. Hitza haragi egin zen,  
 eta gure artean jarri zuen bizilekua.  
 Onartu zuten guztiak  
 Jainkoaren seme-alaba izateko ahalmena eman zien. ∞.

### Ebanjelioa (Jn 1, 29-34)

#### Homiliarako argibideak

1. Kristau bizitza bataioarekin hasten da, gainerako sakramentuen sustrai eta iturri den sakramentuarekin. Kristauei haren zentzu sakona eta ebanjelioaren arabera bizitzeko dituen ondorioak azaldu nahi izan zaizkien arren, oraindik ere nagusi da bekatuak garbitzeko, Jainkoaren babesa ziurtatzeko eta gaitz espiritual eta materialetatik babesteko erritu erlijiosoaren ideia. Askotan, bataioa hartzea lagunarteko loturak sortzeko erabiltzen den ohitura sozial bat besterik ez da. Horregatik, ez da kontuan hartzen aitajaun-

-amandreak kristau praktikanteak diren eta fedearen eskakizunez konbentzituta dauden ala ez. Kasu batzuetan, ebanjelioak eskatzen duenaren aurka bizi dira, eta, beraz, besoetakoak kristautasunean hezteko konpromisoa formula erritual bat baino ez da.

2. Gaurko ebanjelioak Bataiatzailea aurkezten digu, eta bere predikua eta bataioa oraindik Jesusen etorrerako prestaketa-ildoan daudela aitortzen du. Aliantza Berria inauguratuko du, urarena eta bekatuen garbiketarena bakarrik ez, baizik eta Espiritu Santuarena ere baden bataio batekin. Espirituaren bitartez, Jainkoaren seme-alaba bihurtzen gara, Elizan sartzen gara, fededunen elkartean. Abba dei diezaiokegu Jainkoari, Aita. Espirituak gidatzen gaitu, gugan besteekin bat egitera daraman maitasunaren fruitua sortuta; horrek ematen digu benetako askatasuna, eta alaitasunez eta bakez betetzen gaitu. Espirituak bizi eta gidatzen gaitu. Gaurko ebanjelioaren irakaspen horrek gure bataioaren zentzuaz eta irismenaz jabearazi behar gaitu.

3. Bataioan jasotzen dugun Espirituak ez digu automatikoki lagutzen. Gure lankidetzara aske eta arduratsua eskatzen du. Zirkunstantzien, Elizaren irakaskuntzen, denboren zeinuen bidez, zalantzan jarri eta interpelatu egiten gaitu Berak. Jesusen jarraitzaileak garenez, sorkuntza menperatzeko eta besteen onerako laguntzeko eskatzen digu. Horrela betetzen dugu bataioan ematen zaigun Kristoren benetako funtzioa. Gainera, Kristori eskaini ahal eta behar diogu eta Berarekin eskaini behar dugu geure burua, eta modu kontzientean eskaini behar diogu Aitari sorkuntza. Horrek izan beharko luke bataioan jasotako apaiz funtzioa. Azkenik, Kristoren misio profetikoaren partaide garenez, ebanjelioaren, salbazioaren berri onaren, lekukotza eta aldarrikapena egitera deituta gaude, eta Jainkoaren proiektuaren aurka doan guztia zalantzan jartzera garamatza. Bataioaren bidez, Jesu Kristoren bizitzaren eta berpiztearen lekuko eta munduaren eta historiaren

bihotzean dagoen Jainko biziaren seinale izatera deituta gaude. Horretarako ditugu Espiritu Santuaren argia eta indarra, bataioan jasotakoak.

### **Jainkoaren herriaren otoitza**

Senideok egiogun otoitz Jaunari, eta eska diezaiogun entzun ditzala errukiz gure otoitzak:

- Elizaren alde, bakean eta batasunean biziz, Jainkoaren ezaugarri izan dadila mundu zabalean. Eska diezaiogun Jaunari.
- Gure herriko eta herrialde guztietako agintarien alde, Jainko gure Jaunak argi ditzala haien pentsamenduak, egiazko bakeranzko erabakiak har ditzaten beti. Eska diezaiogun Jaunari.
- Bihotz-berritze bidean direnen alde eta bataioa hartzeko prestatzen direnen alde, Jainkoak bere errukiaren ateak zabal diezazkiela eta Kristoren bizi berrian parte eman diezaiela. Eska diezaiogun Jaunari.
- Lurralde guztietako haurren alde: Jesusen berri ona aurkitzeko zoria izan dezatela, aurkituta leial bizi daitezela, eta leial izanik Haren lagun eta testigu ager daitezela guztiontzat. Eska diezaiogun Jaunari.
- Hemen gurekin ez dauden etxeko eta adiskideen alde, Jainkoak entzun ditzala haien otoitzak ere eta bere asmoetan lagun diezaiela. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko ahalguztiduna, Kristo, herri guztien argia den pazko-bildotsaren bidez, gizaki guztiak itun berriaren herria osatzera deitzen dituzu; entzun gure otoitzak eta sendotu gugan Zure Espirituaren indarrez bataioaren grazia, gure bizitzak Ebanjelioaren poza adierazi dezan. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℞. Amen.

## **Diru-bilketa egitean**

Oparigaiak dakartzagu aldarera, Jesus Eukaristian presente egin dadin. Geure eskuzabaltasuna ere orain agertuko dugu, diru-bilketa egitean mundu osoko haur misiolarien eguna dela gogoratuz.

## **Oparigaien gaineko otoitza**

Egizu, Jauna, parte har dezagula sarri sakramentu honetan, gure erospena gertaberritzen baita Jaunaren opariaren oroigarri hau ospatzen dugun bakoitzean. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̄*. Amen.

## **Jaunartze ondorengo otoitza**

Isur iezaguzu, Jauna, zeure maitasun-espirtua, zeruko ogi bat beraz janaritu gaituzunok zeure maitasunean bat egin gaitzazun. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̄*. Amen.



Urtarrilaren 22an  
**URTEAN ZEHARREKO III. IGANDEA**

***Jainkoaren Hitzaren igandea***

**Agurra**

Berri on eta pozbide dugun Jesus Jauna izan bedi zuekin.

**Sarrerako oharpena**

Ongi etorri, senide maiteok, Jaunak igandero eskaintzen digun otordu santura. Duela hiru urte, “Jainkoaren Hitzaren igandea” eratu zuen Frantzisko Aita Santuak Urtean Zeharreko hirugarren igande honetarako. Kristo Piztuak, gizon egin den hitzak, gure bizitzak argitzen dituela gogoraraziz eta bere izenean biltzen garenon artean beti presente dagoela kontuan izan dezagun. Bidera ateratzen zaigu; bere Hitzak sutu ditzala gure bihotzak eta bultza gaitzala Jainkoaren maitasunaren berri on eta pozgarria iragartzera.

**Damu-otoitza**

Bekatari garela aitortuz, eska diezaiogun barkamena Jainko erukitsuari konfiantza osoz.

—Jesus Jauna, behartsuei Berri Ona ematera bidalia: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, zure Espiritua beti gugan indartsu iraunarazten duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, besteen behar larrien aurrean erne bizitzen erakusten diguzuna: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ✠. Amen.

## Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,  
zuzendu zeure gogara gure jarduera,  
zure Seme maitearen izenean fruitu on ugari eman dezagun.  
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ℞. Amen.

## Hitzaren liturgiari oharpena

Jainkoak dohaintzat ematen digun salbamena, bizitzari zentzua eta argitasuna emanaz gertatzen da. Jesusengan gertatzen da salbamen hori, Bera da sinestedun guztiontzat Jainkoaren agerpena, eta horregatik ezin da inoiz gertatu haserre bide, batasun lokarri baizik.

## Lehenengo irakurgaia (Is 8, 23b–9, 3)

Isaias Profetaren liburutik

Garai batean, lotsagarri utzi zituen Jaunak Zabulonen lurraldea eta Neftaliren lurraldea; azken aldian, ordea, ospetsu egin du itsaso ondoko bidea, Jordanez bestaldeko lurraldea, Galilea, jentilen eskualdea. Ilunpean zebilen herriak argi handia ikusi zuen; herioitzalean bizi zirenei distira egin zien argiak. Gehitu zenuen poza eta handitu atsegina; pozik dabilta zure aurrean, uzta biltzean izaten den pozez, harrapakinak banatzean izaten den atseginez. Apurtu baituzu lepoan zeramaten uztarri astuna, zapaltzailearen aginte-makila, Madiango gudarostea apurtu zenuen bezalaxe..

## Erantzun-salmoa (Sal 26, 1. 4. 13-14)

Jau - na dut ar - gi e - ta sal - ba - men.



- ✠. Jauna dut argi **eta** salbamen,  
 nork **ni** beldurtu?  
 Jauna **bizi**aren babes,  
 nork **ni** izutu? ✠.
- ✠. Gauza bat eskatzen diot Jaunari, '  
 horren **bila** nabil ni:  
 bizi nadila Jaunaren etxean '  
 neure bizitzako egun **guztietan**,  
 Jaunaren edertasuna miretsiz  
 eta haren ten**plua** zainduz. ✠.
- ✠. Ziur dakit Jaunaren ontasuna gozatuko dudala '  
 bizidun**en** lurrean.  
 Itxar**on** Jaunagan!  
 Eutsi gogor, **izan** bihotz!  
 Itxar**on** Jaunagan! ✠.

### **Bigarren irakurgaia** (1 Ko 1, 10-13. 17)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok, Jesu Kristo gure Jaunaren izenean arren eskatzen dizuet: etor zaitezte denok bat elkarrekin eta ez bedi izan zatiketarik zuen artean; bizi elkar ondo harturik, ikuspegi eta iritzi bat bera duzuela.

Izan ere, ene senideok, Kloeren jendeagandik jakin dut eztabaidak dituzuela zeuen artean; alegia, hor ari omen zarete nor bere aldetik esaten: «Ni Paulorena naiz», «ni Apolorena»; «ni Pedrorena», «ni Kristorena».

Zatitua al dago, bada, Kristo? Paulo gurutziltzatu ote zuten zuengatik? Edota Pauloren izenean bataiatu ote zintuzteten?

Kristok ez ninduen bataiatzera bidali, Berri Ona hots egitera baizik, eta hau, ez giza jakinduriatzko hitzez, Kristoren gurutzeak bere indarra gal ez dezan.

### Aleluia (Ik. Mt 4, 23)



✠. Erreinuari buruzko Berri Ona hots egiten zuen **J**esusek eta herrian gaitz guztiak sendat**zen** zituen. ✠.

### Ebanjelioa (Mt 4, 12-23)

#### Homiliarako argibideak

1. Egunero-egunero hedabideen bidez jasotzen ditugun albiste gehienak berri txarrak dira: gerrak, gosea, epidemiak, hilketak, zorigaitz naturalak, era guztietako bidegabekeriak. Horregatik zabaltzen dira munduan, ezer ezin daitekeela alda sinistuta, indibidualismora erraz eramaten duten esperantzarik eza, eszeptizismoa eta etsipena. Ikuspegi sozialetik gauzak horrela ikusten badira, elizaren ikuspegitik ere antzeko zerbait gertatzen da: bere ministroen eskandaluek, barne banaketek eta errito zein bigarren mailako gauzek eta moralismoek duten eraginaren ondorioz, berri ona izan beharrean, albiste txarra izaten da sarri ebanjeliazioa, gure Jaun Jesu Kristoren Jainkoa ez den Jainko baten ideia komunikatzen baitu.

2. Gaurko ebanjelioak eta Bibliako beste irakurgaiak, aldiz, zentzurik gabeko mundu baten ilunpean dir-dir egiten duen argi

batez hitz egiten digute. Erreinua aldarrikatzen aurkezten digute Jesu, hau da, Berri Ona. Ilunpean zegoen herriak argi handi bat ikusi zuen. Kristorekin, zapaltzen, zatitzen eta banatzen duen oro askatzeko promesak betetzen dira. Harekin, mundu anaiarteko, bidezkoago eta gizatiarrago bat eraikitzen joateko aukera hasten da. Horretarako, pentsamoldea aldatzera gonbidatzen du Kristok, bizitzaz aldatu ahal izateko. Horregatik, berari jarraitzeko deia egiten du. Kristinauoi ahaztu egiten zaigu gure ezaugarri ez duela izan behar arauak eta errituak betetzeak, baizik eta Jesusi jarraitzeak: bizitza konprometitzen du horrek, eta Jesusek izan zuen esperientzia gure eguneroko bizitzan berritza eragiten du: Jainkoa Aita gisa, besteak anaia-arreba gisa eta mundua Jaungoikoarekin eta anaia-arrebekin elkartzeko leku gisa, Berak denontzat jarritako ondasunak partekatuz. Esperientzia hori izatea eta transmititzea Berri On bihurtzen da gugan.

3. Kristau guztiok gaude ebanjelizatzaera deituta, hau da, Berri Ona transmititzera, alegia, Jainko Aitak maite gaituela, eta elkar maitatzeko agindua anaitasunean bizitzeko eskatzen digula: "Guk badakigu heriotzatik bizira iragan garena, eta hau jakin, senideak maite ditugulako dakigu" (1 Jn 3,14). Gaurko munduak desira duen gauzetako bat eta espero duen Berri Ona bakea, justizia, anaitasuna da. Ez da hitz ederrekin konformatzen; ez ditu maisuak nahi, Berri On horren lekukoak baizik. Jesusekiko intimitateak, berari jarraitzearen ondoriozkoak, familian, lanean, gizartean, Jainkoa guztion Aita dela, Jainkoa maitasuna dela eta maitasunean dirauenak Jainkoarengan eta Jainkoak beragan irauten duela aldarrikatzen duen anaiarteko harrera jarrera hori bizitzera eramango gaitu. Maitasunik ez dagoen lekuan maitasuna jartzea Berri Ona aldarrikatzea da; argia, zentzurik gabeko kaos batean murgilduta dagoen gure mundu honetan.

## Jainkoaren herriaren otoitza

Egiogun otoitza senideok, Jainko Aita errukierrari, bere eskuetan baikaude, eta eska diezaiogun uste onez entzun ditzala bere herriaren otoitzak:

- Jainkoaren Elizaren alde: egunez egun lehia handiagoaz bila dezala bere Jaunaren aurpegia eta bere kide guztiak saia daitezela bihotz berriz bizitzen. Eska diezaiogun Jaunari.
- Nazio guztietako arduradunen alde: gogoz eta kemenez lan egin dezatela guztiontzat bakea eta ongizatea bilatuz, denongan bakea eta justizia nagusitu daitezen. Eska diezaiogun Jaunari.
- Elizan Jainkoaren Hitza iragartzeko ardura duten guztien alde: irakasle, artzain, katekista eta kristau guztiok gaurkotu dezagula Jainkoaren Hitza, entzule guztien bizitzarako argi izan dadin. Eska diezaiogun Jaunari.
- Hemen bilduak gauden guztion alde: Jainkoak fedean sendo irauteko eta elkarren maitasunean hazteko grazia eman diezagula. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko Jauna, apostoluen fedean oinarritu duzu Zure Eliza; entzun gure otoitzak eta egizu Zure hitzak argiturik eta goi-maitasunaren batasunak eraginda, salbamen- eta itxaropen-ezaugarri izan gaitzela ilunpean bizi diren guztientzat. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠ Amen.

## Oparigaien gaineko otoitza

Begira, Jauna, begi onez gure eskaintzari, eta sagara ezazu zeure Espirituaren indarrez, guretzat salbamen-sakramentu gerta dadin. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠ Amen.

**Jaunartze-ondorengo otoitza**

Jainko ahalguztiduna,  
bizi berriaren grazia eman diguzu;  
egizu, bizi berri honek beti poztu gaitzala.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.  $\mathcal{R}$ . Amen.

Urtarrilaren 29an  
**URTEAN ZEHARREKO IV. IGANDEA**

**Agurra**

Jauna zuekin.

**Sarrerako oharpena**

Gutako bakoitza, Jaunak aukeratuak garelako oroitarazten digu igandeko batzarrak. Eukaristian berritzen dugu bokazio hori eta suspertzen da gure fedea, itxaropena eta maitasuna. Kristoren adiskide izateak laguntzen digu, biziaren sakramentuan parte hartuz, gure dohainak, sendotasunez partekatzen.

**Damu-otoitza**

Kristok bekatuaren eta heriotzaren gain lortu duen garaipena ospatzen dugu igandean. Aitor dezagun zeruetako Aitaren errukiaren beharrean garelako, bekatuak hilik bizi berrira piztu gaituzten.

—Jesus Jauna, egiaren eta graziaren **bet**ea zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gu aberasteko zeure burua behar**tsu** egin duzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gurekin zeure herri santua egitera **et**orri zarena: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ℟. Amen.

**Otoitza**

Jainko gure Jauna,  
egizu, gur zaitzagula bihotz-bihotzez  
eta maita ditzagula gizon-emakume guztiak egiazko maitasunez.



Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.  $\text{R}^{\text{e}}$ . Amen.

### Hitzaren liturgiari oharpena

Beti egon izan dira profetak, munduko gertakarietan txarra salatu eta Jainkoaren arrastoak bereizten dituztenak. Sasiprofetak edo gezurrezko profetak ere ez dira falta, engainatzen gaituztenak. Jesusengandik jaso dugu itzaropena sortzeko gai den hitza. Entzun dezagun!

### Lehenengo irakurgaia (So 2, 3; 3, 12-13)

Sofoniasen Profezia liburutik

Bila ezazue Jauna, zuek, lurraldeko apalok, haren aginduak betetzen dituzuenok; bila ezazue zuzentasuna, bilatu apaltasuna. Eta beharbada aurkituko duzue babesela Jaunaren haserre-egunean. «Herri apala eta behartsua utziko dut Nik zurean; Jaunaren izena izango dute babes Israelen bizirik geldituek.

Ez dute bidegabekeriarik egingo, ezta ere gezurrik esango; haien ahoan ez da mingain maltzurrik aurkituko; inork izutu gabe larratuko dira eta etzango».

### Erantzun-salmoa (Sal 146 [145], 6c-7. 8-9a. 9b-10)

Bai do-ha - tsu, Jau - nak be-re oi-nor - de hau-ta -  
tu du - en he - rri - a.



- ∞. Betiko eusten dio Jaunak bere leialtasunari.  
Zapalduen eskubideak defendatzen ditu,  
gose direnei ogia ematen.  
Jaunak askatzen ditu presoak. R̄.
- ∞. Jaunak zabaltzen ditu itsuen begiak,  
Jaunak altxatzen konkortuak,  
Jaunak maitatzen zintzoak,  
Jaunak ditu etorkinak zaintzen. R̄.
- ∞. Umezurtzei eta alargunei zutik die eusten,  
baina gaiztoen nagusigoa iraultzen.  
Jauna errege da betieran,  
zure Jainkoa, Sion, errege menderen mendetan! R̄.

### **Bigarren irakurgaia** (1 Ko 1, 26-31)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: Begira zein zareten Jainkoak deituak; zuen artean ez dira asko munduak jakintsutzat hartzen dituenetakoak, ezta ahaltu nahiz handiketakoak ere. Aitzitik, munduak zorotzat duena aukeratu du Jainkoak, jakitsuak lotsarazteko, eta munduak ahultzat duena, indartsuak lotsarazteko; munduak baliogabetzat eta mespretxagarritzat duena aukeratu du Jainkoak, munduaren begietan ezerez dena, zerbait direla uste dutenak ezerezteko; horrela, ez du inork Jainkoaren aurrean harrotzerik.

Berari zor diozue izatea Kristo Jesusengan, hau egin baitu Jainkoak guretzat jakinduria, honen bidez askatu gaitu, salbatu eta santu egin. Horrela betetzen da Liburu Santuak dioena: «Harrotu nahi duena, harro bedi Jaunagan».

**Aleluia** (Mt 5, 12a)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia, a - le - lu - ia

∇. Poztu zaitezte eta **alaitu**,  
handia izango baita zuen saria zeruetan. ∇.

**Ebanjelioa** (Mt 5, 1-12a)**Homiliarako argibideak**

1. Gizakiaren ezaugarri bat zoriona bilatzea da. Historian zehar hainbat bide arakatu dira, hura aurkitu nahian. Zenbait giza- eta erlijio-esperientziak hori lortzeko baliabideak eskaintzen dituzte. Normalean, zoriona boterean, jakitean, edukitzean eta atseginean zentratzen da. Batez ere globalizazioaren eta komunikazioaren munduan, eskuratu beharreko produktu baten mende dago zorion; hau da, pertsonen erosahalmenaren mende dauden zenbait zirkunstantziaren mende: bidaiak, jaiak, lekuak. Eta, hala ere, hutsune existentziala besterik ez da geratzen gehienetan. Hainbestekoa da desilusia, suizidiora eramaten baitu askotan.

2. Gaurko ebanjelioan, zoriona benetan bermatzen duen bidea aurkezten digu Kristok, zorionbideen bitartez. Lehen begiratuan, zentzugabea dirudi zoriona giza logikan zorigaitzaren seinale lirartekeen egoera eta jarreretan kokatzeak: negar egitean, bidegabekeria eta jazarpena pairatzean, beste batzuek zapaltzen uztean. Hala ere, ebanjelioaren arabera zorionera garamatzen bizimodua praktikatzeko beharrezkoa den espiritu-jarrera

azpimarratzen dute zorionbideek: estilo pobrea, anaitasunezkoa, solidarioa, kontenplatioa, espiritu-pobrezian laburbiltzen dena. Jainkoaren ontasunean eta leialtasunean oinarritzen da eta, aldi berean, hurkoarekiko solidario egiten da. Jainkoaren presentziaren eta hurbiltasunaren ziurtasuna, gauza absolutu bakarra, bake eta zoriontasun iturri da bizitzako zirkunstantzia guztietan. Lagun hurkoarekiko elkartasunari esker eusten zaio justiziarekiko eta Erreinuaren balioekiko konpromisoaren itxaropenari.

3. Zorionbideak gure bizitza zehatzean bizitzen saiatzean, ez dezagun ahantz gogo-pobrezia dagoela haien oinarrian, haiei eutsiz eta zentzua emanaz. Jarrera hori Jainkoaren Hitza entzunez eta otoitz bizitzarekin elikatzen da. Jainkoari irekita, pobrearen bihotza hartzen ari gara, jabetzen garelako dena Jainkoaren errukitik jaso dugula, eta horrek gero eta elkartasun errealagoa ekarriko digu besteekiko. Espiritu-pobrezian sartzen dira otzantasuna, sufrimendua, justizia-desira, errukia, garbitasuna, bakea eta Jesusengatiko jazarpena. Bihotz pobreak Jainkoaren eta anaia-arreba solidarioen kontsolamendua jasotzen laguntzen digu. Horrela, negar egiten dugunean kontsolatu egiten gaituzte; justiziaren gose eta egarri garenean, besteen laguntzarekin asetzen gara. Erruki eta ulerkor bihurtzen gara besteekin eta Jainkoaren erruki infinitua sentitzen dugu. Jainkoaren ontasunean eta fideltasunean oinarritzen den eta lagun hurkoarekiko solidario den bihotz txiroarekin, Kristok eskaintzen digun zoriona gure eguneroko bizitzan errealitate bat dela esperimendatuko dugu.

### **Jainkoaren herriaren otoitza**

Senideok, dei egin diezaiogun bihotz batez on guztiaren iturri den Jainko Aitari:

- Hemen Jaunaren izenean bildua eta mundu osoan zabaldua dagoen Elizaren alde. Eska diezaiogun Jaunari.
- Gure herriaren alde, ongizatean eta bakean aurrerapausoak eman ditzan. Eska diezaiogun Jaunari.
- Bidean direnen alde, gaixoen, kartzelatuen, behartsuen eta sufritzen duten guztien alde. Eska diezaiogun Jaunari.
- Gure senide hildakoen alde, Jaunak bere argizko eta zorionezko erreinuan sar ditzan. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko Jauna, behartsu eta apalei Zure betiereko erreinuko zoriona agindu diezu; entzun gure otoitzak eta egizu Zure fededunek ez dezatela munduko tentaldien aurrean etsi, baizik eta Ebanjelioko apalek bezala, leial jarrai diezaiotela bere Senar eta Jaunari, era honetan Espirituaren eragina dastatuz. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̄x*. Amen.

### **Oparigaien gaineko otoitza**

Hona hemen, Jauna,  
aldare gainean zure zerbitzarion eskaintza;  
har ezazu bihotz onez  
eta egizu guretzat sakramentu salbagarri.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̄x*. Amen.

### **Jaunartze ondorengo otoitza**

Indarberritu egin gaituzu, Jauna,  
gure erospeneke sakramentuaren bidez;  
egizu, betiereko salbamenaren janari honi esker,  
egin dezagula beti aurrera egiazko fedean.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̄x*. Amen.

Otsailaren 5ean  
**URTEAN ZEHARREKO V. IGANDEA**

**Agurra**

Berari jarraitzera deitu gaituen Jesu Kristoren Espiritu santutzailea izan bedi zuekin.

**Sarrerako oharpena**

Kristo piztuak beste igande batez bere mahaian biltzen gaituela jakiteak poztu egin behar gaitu: bere eskaintza ederra ospatzeak laguntzen digu eguneroko gure ahalegina eta eskaintza apala egiten. Horixe da zoriontasuna: bihotza Jainkoaren esku jartzea.

**Damu-otoitza**

Presta gaitezen bekatari garela aitortuz:

—Jesus Jauna, bekatarien artean Santua zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, Aita agertzen digun Jainkoaren Semea: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, jarraitzaile egiten gaituen Maisua: Erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltzua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ℞. Amen.

**Otoitza**

Zaindu familia hau, Jauna, zeure betiko maitasunez;

eta gure esperantzaren oinarri bakarra

zure grazia zerutarra denez gero,

har gaitzazu beti zeure babespean.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,

Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean

Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ℞. Amen.

## Hitzaren liturgiari oharpena

Zuloak dituen etxea berotzea alferrikakoa da; fedeari eusten bakarrik saiatzen den ebanjelizatzea benetakoa ez den bezala. Kristauak, argia izan behar du ilunean dagoenarentzat, ez momentu bateko iluna argitzeko, bestearengan ere argia sortzeko eta bestea ere fedez betetzeko baizik.

## Lehenengo irakurgaia (Is 58, 7-10)

Isaias Profetaren liburutik

Honela mintzo da Jauna: «Eman zeure ogitik gose denari eta hartu etxean aterperik gabeko behartsuak; jantzi biluzik dagoena, eta ez egin entzungor zeure gizakideari. Orduan zure argia egunsentia bezala zabalduko da eta zure osasuna berehala erneko; justizia izango duzu aurretik gidari eta Jaunaren aintza atzetik babesgarri. Orduan zuk dei egin, eta Jaunak erantzungo dizu; zuk oihu egin, eta hark esango: “Hemen nauzu!”

Uztari oro, salaketak eta gaizki esateak baztertzen badituzu, gose denari zeure ogitik ematen eta behartsuaren premia asetzen baduzu, zure argia ilunpean zabalduko da eta zure ilunaldia eguerdi bihurtuko».

## Erantzun-salmoa (Sal 112 [111], 4-5. 6-7. 8a eta 9)

Jau - na dut ar - gi e - ta sal - ba - men.

- ∇. Ilunpean argia bezala da **zuzenentzat**:  
errukiorra, bihozbera **eta** zintzoa.

Ongi doakio errukitu eta ematen **du**enari,  
bere arazoak zuzen atontzen **ditu**enari. R̃.

∞. Ez da inoiz kolka egongo;  
zintzoaren oroitzapenak beti bizirik **du** iraungo.  
Ez die berri txarrei beldurrik,  
sendotu du bihotza, Jaunaz **fi**daturik. R̃.

∞. Seguru du bihotza, beldurrik gabe;  
esku betean ematen die **be**hartsuei,  
haren eskuzabaltasunak betiko dirau,  
ohorez jasoko du **be**kokia. R̃.

### Bigarren irakurgaia (1 Ko 2, 1-5)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: Niri dagokidanez, Jainkoaren salbamen-asmoa iragartzera joan nintzaizuenean, ez nizuen hitz egin giza jakinduriazko hizkera landua erabiliz. Izan ere, zuen artean ez nuen ezer jakin nahi izan, Jesu Kristo, eta berau gurutziltzatua, izan ezik.

Horregatik, ahul eta beldurrez dar-dar agertu nintzen zuen aurrean. Nire hitza eta predikua ez ziren giza jakinduriazko argudiotan oinarritu, Espirituaren indarrean baizik, horrela, zuen sinesmena Jainkoaren indarrean oinarritu zedin, eta ez giza jakindurian.

### Aleluia (Jn 8, 12b. d)







du; argiak, hobeto ikusteko. Kristau oro bidaltzen da Jesusen mezuaren lekukotza ematera eta iragartzera, giza bizitzako janariak zapore hobea izan dezaten, itxaropena gidatu, animatu eta sostenga dezan, gauzak hobeto ikus daitezten eta, era berean, geurekoikerian ixtera, bihar hilko garenez jatera eta edatera, momentuko gogobetetasuna bilatzera, daraman hutsune existentziala gaingaitzen lagun dezan.

3. Jesusek eskatzen digun hori bete nahi badugu, errealitatean txertatuta bizi behar dugu. Ezin da gatza eta argia izan, ondu edo argitu behar denetik isolatuta. Gatzak janariaren zaporea hobetzen du. Argiak ikusmena hobetzen du, hobeto ikusi nahi diren gauzetatik argitzen duenean. Giza bizitzaren inguruabarretan nahastu behar da, ez bakarrik maila pertsonalean, baita maila sozialean ere. Vatikanoko II. Kontzilioaren arabera, arima gorputzarentzat den hori (batasunaren eta bizitzaren printzipioa) izan behar dute kristauak munduan. Ez du axola gatza edo argia onak izateak bakarrik; janariak zapore ona edukitzea eta gauzak hobeto ikustea da lortu nahi dena. Inork ez du esaten gatza goxoa denik, baizik eta zein goxoa den janaria. Hori lortzeko, kristau balioak bizi eta aitortu behar ditugu. Bestela, motel bihurtzen den gatza bezalakoak izango gara. Ez du balio eta baztertu egin behar da. Jainkoak nahi du kristau balioak guztiei transmititzea, eta ez bakarrik Elizak bizitzea, gainerako gizateriarengandik isolatuta..

### **Jainkoaren herriaren otoitza**

Egiogun otoitz senideok Aitari, betiereko Jainkoaren Semeari eta on guztiaren iturria den Espirituari:

—Munduan zabaldurik dagoen egiazko Jainkoaren elizarentzat, eska dezagun Jainko-maitasun egiazkoa. Eska diezaiogun Jaunari.

- Herrietako agintarientzat eta gizakien bizimodua euren eskuetan dutenentzat eska dezagun zuzentasun espiritua eta herritarrak zerbitzatzeko lehia. Eska diezaiogun Jaunari.
- Zapalduak diren ahulentzat eta pertsegituak diren zuzenentzat eska diezaiogun Jesus Salbatzaileari. Eska diezaiogun Jaunari.
- Geuretzat eska diezaiogun Jaunari seme-alabatzako begirunea, maitasun leiala eta bititza zorionsua. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko Jauna gurutzearen ezin-ulertuan agertu duzu Zure jakinduria munduko zuhurtziaren gainetik dagoela; entzun gure otoitzak eta egizu barnera gaitezela Ebanjelioaren egiazko espirituan, fedean gartsu eta maitasunean indartsu izanik munduaren argi eta lurraren gatz izan gaitezen. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

### **Oparigaien gaineko otoitza**

Jainko gure Jauna,  
gorputzeko ahuldadean guri eusteko egin dituzu ogi-ardoak;  
egitzazu guretzat betiko biziaren sakramentu ere.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

### **Jaunartze-ondorengo otoitza**

Oi Jainko,  
ogi eta kaliza berean guk parte hartzea nahi izan duzu;  
egizu, Kristorekin gorputz berean bat eginik,  
eman dezagula pozik betiko fruitu ugari  
munduaren salbamenerako.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

*Astelehenean, otsailaren 6an, Igokundeko Martin presbiteroaren beharrezko oroipena ospatzen du Donostiako Elizbarrutiak.*

*Egun horretarako Meza Liburuak eskaintzen dituen otoitz gaiak erabiliko dira, Paulo Miki eta lagunen aurretik Igokundeko san Martinen izena erantsiz.*

Otsailaren 12an  
**URTEAN ZEHARREKO VI. IGANDEA**

***Gosearen aurkako Jardunaldia***

**Agurra**

Gure babes eta harkaitz dugun Jesus Jauna izan bedi zuekin.

**Sarrerako oharpena**

Gure fedea agerian jartzen dugu Bataiatuok igandean. Asteazkenean zehar bakoitzak bizi duena, Eukaristian elkarrekin partekatuz eta Kristoren Piztuera ospatuz.

Gaur Manos Unidas erakundearen eskutik Gosearen aurkako Jardunaldia dugu. Eta aurtengoan, denona den lurra zaintzea ere munduko baztertuenei bizitza duinagoa eskaintzeko modua dela gogoratzen zaigu: «Planetarekiko tratu txarren kaltetuena ez zara zu». Behartsuei laguntzeko asmoari jarraitzen dio erakunde honek honek eta aintzakotzat hartuko dugu gure otoitzean eta diru-bilketa berezian.

**Damu-otoitza**

Aitor dezagun Jainkoaren aurrean, barkamen beharra dugula.

—Jesus Jauna, gure bidelagun egin zarena: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gurutzean bizia eman diguzuna: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, piztean itxaropenez bete gaituzuna: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltzua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ✠. Amen.

**Otoitza**

Oi Jainko,  
 bihotz garbi eta zintzoengan biziko zarela agindu duzu;  
 zeure graziari esker,  
 egin gaitzazu zure bizileku izateko gai.  
 Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
 Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
 Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ✠. Amen.

**Hitzaren liturgiari oharpena**

Gizakiak begi aurrean ditu ona eta txarra aukeratzeko milaka aukera. Bizira daraman maitasun legeak argitzen gaitu horretan. Onbidera edo txar-bidera zuzentzeko erantzukizuna dugu. Dena Jainkoaren presentzian gertatzen da.

**Lehenengo irakurgaia** (*Sir* 15, 16-21)

Siraken liburutik

Nahi baduzu, gordeko dituzu aginduak, eta zintzo beteko Jaunaren nahia. Hark sua eta ura jarri dizkizu aurrean; nora nahi, hara eraman dezakezu eskua. Bizia eta heriotza daude gizakiaren aurrean jarriak; zer duen aukeratzeko, huraxe emango zaio. Handia da, bai, Jaunaren jakinduria, handia da haren ahalmena eta dena ikusten du. Begirune diotenengan ditu jarriak begiak, gizakiak egindako guztia ezagutzen du. Ez dio inori fedegabe izateko agindu, ezta inori bekatu egiteko baimenik eman ere.

**Erantzun-salmoa** (*Sal* 119 [118], 1-2. 4-5. 17-18. 33-34)

Bai mai-te du-da-la, Jau-na, zu-re le-ge-a.



- ∇. Zorionekoak jokabide akats gabea **du**tenak,  
Jaunaren lege-bidean **da**biltzanak.  
Zorionekoak, haren manamendu**ak** betez,  
haren bila bihotz-bihotzez **da**biltzanak. ℞.
- ∇. Jauna, legeak ezarri **di**tuzu,  
arretaz gorde **di**tzagun.  
Izan bitez sendo nire **bi**deak,  
zure arauak **be**tetzeko. ℞.
- ∇. Egiozu on zeure zerbitzari **ri** honi;  
biziko naiz eta gordeko dut zure **re** hitza.  
Ireki nire begiak, ikus **di**tzadan  
zure legearen irakaspen harrigarriak. ℞.
- ∇. Irakatsi niri, Jauna, zeure arauen **bi**dea,  
horri jarraitzea izango dut **sa**ria.  
Emadazu ulermena, eta beteko dut zure **le**gea,  
bihotz-bihotzez dut **go**rdeko. ℞.

### **Bigarren irakurgaia** (1 Ko 2, 6-10)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: Jakinduria irakasten diegu guk kristau helduei; baina jakinduria hori ez da mundu honetakoa, ezta laster galduko diren mundu honetako agintariena ere. Guk Jainkoaren jakinduria misteriotsua irakasten dugu, hark ezkutuan edukia eta betidanik gure aintzarako erabakia zeukana. Mundu honetako agintarietako inork ez du ezagutu jakinduria hori, zeren, ezagutu izan balute, ez baitzuten gurutziltzatuko Jainkoaren aintza berekin zuen Jauna.

Baina, Liburu Santuak dioen bezala, «inork ikusi eta entzun ez duena, gizakiari inoiz bururatu ez zaiona, Jainkoak bera maite dutenentzat prestatuak zeukana», horixe agertu digu Jainkoak Espirituaren bidez. Espirituak, izan ere, guztia aztertzen du, baita Jainkoaren barren-barrena ere.

### Aleluia (Ik. Mt 11, 25)

Al - le - lu - ia, al - le - lu - ia.

∕. Bedeinkatua Zu, Aita, zeru-lurrren Jauna,  
erreinuari buruzko Berri Ona  
jende xumeari agertu diozulako. ∕.

### Ebanjelioa (Mt 5, 17-37)

#### Homiliarako argibideak

1. Sarritan, bizitzatik deskonektatutako hainbat praktika bihurtu dugu kristautasuna, eta ahantzarazi egiten dute anaiarekiko maitasuna nagusi izango den anaitasuna sortzea dela funtsezkoa. Bestalde, inork ulertzen ez zituen erritu bihurtu ziren liturgia-ospakizunak, mendeetan zehar. Latinez ziren, gainera, oso gutxik ulertzen zuten hizkuntza hil batean. Halabeharrez hartzen zen parte ospakizun horietan, igandean meza halabeharrez entzuten zen bezala. Horien ondoren, ez zen fedea adierazteko konpromisorik geratzen, hurkoa maitatuz, justizia praktikatuz, besteekin solidario izanez. Oraindik ere, maiz, kultuaren eta

bizitzaren arteko bereizketa bizi da. Lehenengoak ez du eraginik bigarreanean.

2. Gaurko ebanjelioan, Kristok ohartarazten digu gure justiziak handiagoa izan behar duela legea eta gurtza –eta ez anai-arreba– ardatz zituzten letratuena baino. Jesus ezin esplizituagoa da anaitasuna kultuaren gaintik zegoela baieztatzen duenean, justiziarekin konprometitzen ez zuten liturgia ospakizunetan Jainkoak ez zuela atsegin hartzen azpimarratzen zuten profeten ildotik: "Zure eskaintza aldarearen gainean jartzera zoazenean, han bertan gogoratzen bazara zure anaia-arrebak kexaren bat duela zure aurka, utzi zure eskaintza aldarearen ondoan eta zoaz lehenik zure anaia-arrebarekin adiskidetzera, eta itzuli gero zure eskaintza aurkeztera". Gainera, gaurko ebanjelioaren beste irakaspenetan, hurkoarenganako maitasun sakonagoa azpimarratzen du Jesusek; legetik haratago joatera, maitasuna bizitzera eta Jainkoaren Erresumari eskriben eta fariseuen justiziatik haratago ematera bultzatzen gaitu.

3. Igandeko mezak legearen eta gurtzaren benetako zentzuan sakontzeko abagunea izan behar luke. Lege ooren helburua da gu Jainkoarenganako eta hurkoarenganako maitasunean haztea. Kultuari dagokionez, itxaropenean ospatutako Jainkoaren Hitza bezala ulertu beharko litzateke liturgia, fedeagatik eta maitasunean bizitzeko eta adierazteko konpromisoarekin hartu ondoren. Horrela, kultuaren eta bizitzaren arteko jarraipena agertzen da. Jainkoak Kristoren bidez eman digu bere seme-alabak eta gure artean anaia-arreba garelako berri ona. Guk federekin hartu dugu. Berri ona denez, familia gisa biltzen gara liturgiaren ospakizunean, itxaropen aktiboan ospatzeko, eta, aldi berean, maitasunean bizitzeko konpromisoa hartzen dugu. Liturgiaren aurretik fedea



dago. Liturgian, itxaropena. Liturgiaren ondoren, Kristok gaurko ebanjelioan aipatzen digun maitasuna.

### **Jainkoaren herriaren otoitza**

Jo dezagun, senideok, errukiaren Jainkoarengana eta eska diezaiogun bere gogora bizitzeko indarra:

- Mundu guztiko bakearen alde, Elizen onaren alde eta gizakien batasunaren alde. Eska diezaiogun Jaunari.
- Herrietako arduradunen alde, beren ardurapean bizi oparoa eta bakezkoa izan dezagun. Eska diezaiogun Jaunari.
- Era askotara behartsu direnen alde, bereziki ongizatearen gizartean planeta zaintzen ez dugulako gosea jasaten dutenen alde. Eska diezaiogun Jaunari.
- Piztueraren itxaropenean hil diren gure senide eta adiskideen alde, Jainkoak bakezko atsedena eman diezaien. Eska diezaiogun Jaunari.

Jainko Jauna, zuk erakutsi diguzu, maitasunean duela Legeak bere oinarria eta betetasuna; entzun zure herriaren otoitzak eta emaguzu hemen bildu garenoi Ebanjelioko eskakizunekin leial izatea, gizaki guztientzat adiskidetze eta bake ezaugarri izan gaitezen. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ℞. Amen.

### **Diru-bilketa egitean**

Egitera goazen diru-bilketa, “Manos Unidas” erakundearen proiektuekin bat egiteko izango da. Pobreziaren aurkako ahalegin honetan saia gaitezen guztiok eskuzabal izanez.

**Oparigaien gaineko otoitza**

Eskaintza honek, Jauna, garbi gaitzala eta eraberritu;  
eta zure nahia betetzen dutenentzat  
izan dadila betiko sariaren iturri.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

**Jaunartze-ondorengo otoitza**

Jauna, zerutar ogi osasungarria eman diguzu janari;  
egizu, bila ditzagula guk ere beti  
egiazko bizia ematen diguten ondasunak.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. ✠. Amen.

Otsailaren 19an  
**URTEAN ZEHARREKO VII. IGANDEA**

**Agurra**

Aita errukitsua eta Jainko poz-emailea izan bedi zuekin.

**Sarrerako oharpena**

Igandea dugu, senideok: Jaunaren eguna! Zatiketa eta gorrotoa gainditzen laguntzen digun maitasunaren sakramentua ospatzera bildu gara. Aitak bezalako bihotz errukitsua izan dezagun moldatzen gaitu pixkanaka Eukaristiak: ospa dezagun pozik.

**Damu-otoitza**

Eska diezaiogun Jainkoari bihotz-berritzearen grazia; horrela baketzea lortuko dugu eta elkartuago egongo gara Jainkoarekin eta geure senideekin.

—Jesus Jauna, Zuk maite gaituzu lehenengo: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, Zuk ezer itxaro gabe maite gaituzu: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, Zuk neurri gabe maite gaituzu: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahalsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ✠. Amen.

**Otoitza**

Jainko ahalguztiduna, zure laguntzak egin gaitzala gai,  
beti zuzen dena hausnartuz,

Zuri atsegin zaizuna hitzez eta egitez betetzeko.

Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,

Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean

Jainko eta Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ✠. Amen.

## Hitzaren liturgiari oharpena

Bibliako pasarte zoragarriek laguntzen digute gure kristau-bidean. Gorrotoa maitasun bihurtzen ikasi nahi dugu gaur. Jesusek egiazko legeari –maitasun legeari– begira jarriko gaitu.

## Lehenengo irakurgaia (Lb 19, 1-2. 17-18)

Lebitarrena liburutik

Jauna honela mintzatu zitzaion Moisesi: «Esan israeldarren elkarte osoari: “Izan zaitezte santu, Ni, Jauna zuen Jainkoa, santua naiz eta.

Ez izan bihotzean gorrotorik zeure senidearentzat; baina zentzarazi zeure herritarra, haren bekatuen erantzukizunik izan ez dezazun. Ez egin mendekurik, ez izan erresuminik zeure herritarrarentzat. Maita ezazu lagun hurkoa zeure burua bezala. Ni naiz Jauna”».

## Erantzun-salmoa (Sal 103 [102], 1-2. 3-4. 8 eta 10. 12-13)

E - rru - ki hu - tsa du - gu Jau - na, e - rru - ki - a  
ta mai - ta - su - na.

- ∇. Bedeinka beza nire arim**ak** Jauna,  
nire barren osoak haren izen **santu**a.  
Bedeinka beza nire arim**ak** Jauna,  
ez bedi ahaztu haren mesed**e**az. ∇.

- ✠. Erru guztiak dizkizu **barkatzen**,  
gaitz guztiak **sendatzen**;  
zure bizia hilobitik **askatzen** du,  
maitasunez eta errukiz koroatzen **zaitu**. ✠.
- ✠. Bihozbera eta errukiorra **da** Jauna,  
haserregaitza eta onginahiz **betea**.  
Ez gaitu erabiltzen gure bekatuek merezi **bezala**,  
ez digu ordaintzen geure erruen arabera. ✠.
- ✠. Nola ekialdea mendebaldetik **urrun**,  
hala ditu hark gure hobenak gugandik **urruntzen**.  
Nola aita seme-alabentzat **errukior**,  
hala Jauna begirune diotenentzat **gupidatsu**. ✠.

### **Bigarren irakurgaia** (1 Ko 3, 16-23)

San Paulo Apostoluak Korintoarrei egindako lehenengo gutunetik

Senideok: Ez al dakizue, Jainkoaren tenplu zaretela eta Jainkoaren Espiritua zuengan bizi dela? Jainkoaren tenplua hondatzen duena, hondatu egingo du Jainkoak, Jainkoaren tenplua santua baita; tenplu hori zuek zarete.

Ez beza inork bere burua engaina. Zuetako norbaitek mundu honen arabera jakintsu dela uste badu, egin bedi zoro, egiaz jakintsu izateko. Izan ere, mundu honetako jakinduria zorakeria da Jainkoaren aurrean, Liburu Santuak dioen bezala: «Jakintsuak beren maltzurkerian harrapatzen ditu Jainkoak». Eta beste hau ere badio: «Badaki Jaunak jakintsuen asmoak hutsalak direla».

Beraz, ez bedi inor gizakiez harrotu, dena zuena baita: Paulo, Apolo, Pedro, mundua, bizitza, heriotza, oraina eta geroa; guztia zuena da. Zuek, ordea, Kristorenak zarete, eta Kristo Jainkoarena.

**Aleluia** (1 Jn 2, 5)

A - le - lu - ia, a - le - lu - ia, - a - le - lu - - - - ia. -

∇. Kristoren hitza betetzen duenagan  
Jainkoaren maitasuna bere betera iritsi da egiaz. ☩.

**Ebanjelioa** (Mt 5, 38-48)**Homiliarako argibideak**

1. Indarkeriaz eta gorrotoz betetako mundu batean bizi gara. Gizarte mailan, senideen arteko gerrak, genozidioak, krimenak bizi ditugu. Hurbileko harremanetan ere (familian, lanean, erakundeetan) interesen, tentsioen eta gaizki-ulertuen arteko talka gertatzen da maiz, eta horrek zatiketak, gorrotoak, ezinikusiak eta mendeku nahiak eragiten ditu. Norbaitek laidotzat edo bidegabekeriatzat hartzen duenaren aurrean duen lehen erreakzioa mendeku hartzea da, edo, kasurik onenean, harreman oro etetea eta hori egin dutenen mugak azpimarratu eta "etsai" gisa ikustea. Egin duenari min egiteko modua bilatzen da, eta, horrela, inoiz amaitzen ez den indarkeria-zirkulu bat sortzen da.

2. Gaurko ebanjelioan, beteezina dirudien eskaera bat egiten digu Jesusek, baina hori da indarkeriaren zurrumbiloa kolpetik mozteko bide bakarra. Denak maitatzeko eskatzen digu Jesusek, haiengatik eta etsaiengatik sakrifikatzeraino. Zaila da "gorrotatzen gaituztenei ongia egitea eta jazartzen eta erasotzen gaituztenen alde otoitz egitea". Baina, ez ginateke kristauak izango, hori egiteko gai ez bagina. Jainkoaren laguntza dugu horretarako. "Eguzkia onen eta

gaiztoen gainetik aterarazten duen eta euria zuzenei eta bidegabeei bidaltzen dien" aitarena da gure eredia, eta, aldi berean, gaizki egin digunari barkatzen eta ongiuz erantzuten jakiteko behar dugun indarra ematen diguna. Jesusek ez digu gauzak, arauak eskatzen, baizik eta zeruetako gure Aita bezalakoa izatea, hori baita on guztiaren iturria.

3. Etsaiak maitatzeko Jesusen agindua praktikan jartzeko ahalegin horretan, sentimendu psikologikoak eta etsaiarekiko maitasun zehatz eta eraginkorra bereizi behar ditugu. Ez zaigu eskatzen psikologikoki min eman digunarekiko sinpatia edo harmonia sentitzea. Oso gaizki senti gaitezke jazarri gaituena, eraso gaituena, min ematen diguten bidegabekeriak egin dizkiguna gogoratzen edo ikusten dugun bakoitzean. Baina hori ez da eragozpena bihotzez barkatzeko eta aukera agertzen denean gaizkiaren ordeztu itzultzeko. Pertsona batek bere etsaien alde otoitz egiten badu, argi dago barkatu egin duela, nahiz eta psikologikoki berriro konfiantzarik, enpatiarik edo sentimenduen sintonia eskatzen duen adiskidetasunik ez izan.

### **Jainkoaren herriaren otoitza**

Senideok: dei egiogun Jainko onari otoitz xume eta egiazkoa eginez:

- Eguzki alde batetik besteraino zabaldurik dagoen Eliza Santuaren alde: Jaunak itxaropenean sendo dezala, munduko lilura eta gehiegikerietara jo ez dezan. Eska diezaiogun Jaunari.
- Munduan agintea dutenen alde: haien gidaritzapean bakez bizi gaitezela, Kristo, gure itxaropena, goratuz. Eska diezaiogun Jaunari.

—Fedearen testigantza emateagatik sufritzen dutenen alde, misiolarien alde: Jaunak leial sendo ditzala. Eska diezaiogun Jaunari.

—Jaunaren izenean bilduak gaudenon alde eta otoitzean gogoan ditugun guztien alde: Jainkoak fedean sendo gaitzala eta egun batean guztiok Bere erreinuan bildu. Eska diezaiogun Jaunari.

Gurutzean beheratutako Zure Semearengan erakutsi diguzu, Aita, Zure maitasunaren indarra; entzun gure otoitzak, egin gaitzazu Espirituaren ahotsarekin esaneko, hautsi itzazu indarkeriaren eta gorrotoaren kateak eta egizu lan egin dezagula ongiak gaitza garaitu dezan, honela bakezko Ebanjelioaren testigantza eman dezagun. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

### **Oparigaien gaineko otoitza**

Zure misterioak dagokien begirunez ospatzean,  
apalik eskatzen dizugu, Jauna,  
zure handitasunaren ohoretan eskaintzen dugunak  
ekar diezagula salbamina.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

### **Jaunartze-ondorengo otoitza**

Jainko ahalguztiduna,  
salbamen-sakramentu honetan eman diguzun ogia  
izan dezagula betiko biziaren ezaugarri.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.